

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Hasierako onespena ematea Vitoria-Gasteizko hiri antolamenduko plan orokorraren (HAPO) berrikuspenari

Vitoria-Gasteizko Udalbatzak 2023ko otsailaren 7an egindako aparteko eta premiazko bilkuran erabaki hau hartu zuen:

1. Hasierako onespena ematea Vitoria-Gasteizko hiri antolamenduko plan orokorraren berrikuspenari, Trion-Usandizaga y Ekain PGOU Vitoria-Gasteiz ABEEak landutako proiektuaren araberako eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko urtarrilaren 27an, 2023ko otsailaren 2an eta 2023ko otsailaren 3an onetsia eta zuzendua.

2. Vitoria-Gasteizko HAPO berria osatzen duen dokumentazio guztia eta ingurumen-azterketa estrategikoa jendaurrean jartzea, 2023ko ekainaren 1era arte, ALHAOean eta Araban gehien saltzen diren egunkarietan horren berri emanez. Jendaurreko erakustaldian, edozein erakunde edo pertsona interesdunek aztertu ahal izango du dokumentazioa, eta egoki irizitako alegazioak aurkeztu. Dokumentazioa udalaren webgunean egongo da eskuragarri, baita udal bulegoetan horretarako prestatzekoa den gunean ere; gune hori informazio publikoaren iragarkian adieraziko da.

3. HAPOaren hasierako onespena jakinaraztea sektorean eskumenak dituzten administrazio publikoei eta udalerriko administrazio batzarrei, jakinaren gainean egon daitezen eta txostena egin dezaten.

4. HAPOaren hasierako onespenaren agiria eta ingurumen-azterketa estrategikoa alde aurretik kontsulta egin zaien eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei bidaltzea, jendaurreko informazio balioduneko epean txostenak egin eta egokitzen jotzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

5. 2/2006 Legearen 85.3 artikularekin bat etorritik, hasierako onespenaren erabaki honek onespen, baimen eta lizentzia oro etetea dakar, gehienez ere 2 urtez, aurreikusitako zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzea dakarten eremuetan.

Ezin izango da izapidetu hasieran onetsitako HAPOaren dokumentuaren zehaztapenak urratzen dituen dosierrik.

6. HAPOaren berrikuspena osatzen duen dokumentazioa aurkeztea Plangintzarako Aholku Kontseiluan, eta organo horri eskatzea berrikuspenari buruzko txostena egin dezan, jendaurreko erakustaldirako epean.

7. Hasierako onespena emateko ebazpen honen aurka ezin da administrazio-errekurtsorik edo administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri, izapide-egintza bat delako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan aurreikusitako salbuespenak gorabehera.

Espedientea jendurrean egongo da Vitoria-Gasteizko Udalean (San Martingo bulego teknikoak), Vitoria-Gasteizko Teodoro Dublang Margolariaren kaleko 25. zenbakian eta udalaren web-orrian, esteka honetan: www.vitoria-gasteiz.org/hapoberria.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko otsailaren 7an

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE